

Aurkezpena: Paisaiaren adiera

Fdez. de Larrinoa, Kepa

SARRERA

Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografia saileko *Koaderno* hau modu berezi batez tankeratu dugu, monografiko gisa osatu dugu eta. Bere sorrera ere berezia du: 1995. urtean Donostian eta 1996. urtean Iruñean Antropologia-Etnografia sailak antolaturiko Ihardunaldietan aurkeztu ziren txostenetan oinarritzen da.

Argitarapen hau Antropologia-Etnografia saileko *Mendiko Gizarteak eta Kulturak* izeneko iker-esparruaren zehetasun batzu aipatzera dator. Ikergaia zabala da. Bistan da, beraz, liburu honek ezin duela inola ere gaiaren zabalera berdindu. Hau dela-eta, txosten eta artikulu bake-ta honen helburua bikoitza da. Batetik, basoaren eta mendiaren antropologiaren berri ematea da monografiko honen arrazoi bat. Bestetik, 'gonbidapen' modura dator. Hau da, *Koaderno* honek gonbidatzen du gai honetaz ikerketa egitera. Basoak, mendiak eta jendeak aztertzeak –beren elkarren artekotasuna miatzeak-makina bat arlo, ikuspegi eta gogoeta-ildo badaudela erakusten digu. Haietako batzu honatu ditugu. Gura genituzke osterantzeko ikusmirak hurrengo monografiko batean argitaratu, eta ondorioz geure ezagutza largatu.

Euskal Herriko mendiko gizarte eta kulturaz jakinmin etnografikoa eta antropologikoa ez da berria. Hortxe dugu mende-hasierako Joxemiel de Barandiaran-en eta Julio Caro Barojaren idazlanak. Hortxe ditugu William Douglass eta Sandra Ott geroko antropologoek azterketak. Eta gaurdaino dirau gizarte-moeta honi buruzko interesak. Horra hor adibide gisa Etniker taldeak osatzen ari diren Euskal Herriko Atlas Etnografikoa eta beste ikergunetako aditu zenbaiten saioak.

Normalean biologiari, natur-zientzietan eta baso-ingenieritzetara lotzen diegu mendiaren eta basoaren ikerketa. Alegia, *fauna*, *flora* eta *ur-eraikuntza* deritzegunei. Hala ere, mendialdean pertsonen komunitateak bizi dira. Eta beraien zehetasunak ezagutzeak beste lekuetara ikerteta moeta dakar.

Mendialdeko gizon-emaztegoaren bizimoduak giza zientzietan ikertu dituzte. Eta nahiko luze ihardun dute ingurugiro zehatz honetako ezaugarri sozio-kulturalak. Mende honetako bukaeran hain minbera suertatu den naturarengatik, eta ekologiaren arrakastarengatik, aparte indarrez eskatzen zaie giza zientzietan pertsona/natura harremanaz informazio jakinak ematea.

Pertsona/natura harreman ekologikoa –orekatsua, hots-mendialdean, baserrigiroan, kanpainan suertatu dela anitzen irudia izan delako abiatu dira azterlari frango habitat haueta-

ko ogibideak eta iharduerak miaztera. Emaizak han eta hemen agertzen dira, unibertsitateek, ikerketa-institutuek eta garapen-elkarteek ekarrita.

Honetaz, *Koaderno* honen xedea garbia da: jendearen eta naturaren arteko hartu-emanak arakatzea, Euskal Herriko etnografi-lanen eta pentsabide antropologikoaren ikuspegiak kontutan harturik. Zentzu honetan, eztabaida zabalago batean parte hartzea da argitarapen honen asmoa.

Bestalde, unibertsitateetako ikasle eta ikertzaileei gogoeta-tresna bat eskeini nahi diegu, zeren *erruralitatea* finkatzenago doa ikasketa eta ikerketa programetan. Euskal Herriko mundu akademikoan nabari-nabaria da: Deustuko Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean Antropologia Lizentziatura oraintxe zabaldu dira eta bertako ikasgaia da; Gasteizko campusean Geografia Lizentziaturan *geografia rural* bertako ikasgaia da; Nafarroako Unibertsitate Publikoan *sociología rural* bertako ikasgaia da.

Era berean, administrazioeko nekazaritza-sailek badute interes handia mendiko gizarteetan, batez ere Europako politikarekin bat egiterakoan, eta garapen ekonomikorako plangintzak aurrera eramaterakoan. Zeren Europako Elkarte Ekonomikoak, bere barruan dauden mendialdeko gizarteak ekonomikoki garatzeko, bultzatzen dituen egitasmoek behar baitituzte bertako jendeen erro sozialak eta sare kulturalak arraindartu. Ez, ordea, gehiago puskatu. *5-b* eta *leader* proiektuak helburu horri begira sortu dira.

EKOLOGIA ETA ANTROPOLOGIA

Azken urteotan ekologiararen oihartzunak tokioro aditzen dira, hein handian 'berde' edo 'orlegi' mugimenduek bultzatuta. *Natura Saiba Daigun*, *Natura Zaindu Dezagun* eta antzeko grafitiak nonnahi leitzen dira, jende-talde militanteek paretetan kokaturiko afixetan izkribatuta.

Naturak iraun dezan mugimendu ekologistak iradokitako egitasmoak eta kexak baita gaur eguneko antropologiara ere heldu dira. Ordea, honek ez du erran nahi antropologiak naturari eta ekologiari buruzko itaunketarik eta gogoetarik gaurdaino egin ez duenik. Ekologia kulturala beti izan du galdegai antropologiak.¹

Ezbairik gabe, ozonoaren larrialdia hortxe dago, eta beronek basoen desagerketaz pentsatzen jarri gaitu, batez ere Amazoniako oihanak, bizimoduak eta jendeak hots ozenez zabalduz: berauek mintzagai ditugu mundu osoko mass-medietan; defendagai mendebaldeko ekologi-taldetan; eta idazkai Unibertsitate-tesi eta azterlanetan. Artikulo aldeko kultura gehienek, partikularzki Siberia ingurukoek, Amazoniakoek bezalaxe, arazo latzak dituzte.² Aldiz, anitzez gutxiago dakigu haietaz, bai mass-medien, bai talde-ekologisten, eta bai ikerketa akademikoen bitartez, behintzat. Desoreka eta axolagabekeria honexetan klimak badu segurasko bere zeresana, eta errua. Eguraldi eguzkitsuak arrakasta handiagoa izaten du hotzak baino.

Oraingoz, *Antropologia-Etnografía Koaderno* honen aurkezpen honetan bi ideiaaz jabetu behar gara. Bateko, ekologia ez da gai berria ditziplinan: lehenbiziko ikerketa antropologikoak

¹ Ikus adibide gisa J.H. Steward, *The Theory of Cultural Change: The Methodology of Multilinear Evolution*, University of Illinois Press, Urbana, 1935. Gazteleraz, besteak beste, honako entseguetan aurki daiteke berri zehatzagoa: *Cultura y Adaptación*, Ubaldo Martínez Veiga, Anthropos, Barcelona, 1985; *Cultura y Ecología en las Sociedades Primitivas*, María Jesús Buxo (ed.), Mitra, Barcelona, 1983.

² Ikus, esate baterako, *Artic Peoples, Self-Determination and Development*, Minority Rights Group, London, 1994.

geografiari, habitati, ingurugiroari garrantzia handia eman zien. Besteko, ekologiarekiko antropologia ez da berez naturarekiko antropologia. Zeharo planteamendu ezberdinak posible dira, izan dira, eta dirateke.³

NATURA ETA KULTURA

Nahitanahiez, monografiko honen izenburuak izadiaren eta gizartearen arteko harremanez kezkatzera gakartza. Ikertzaile batzuk erlazio adaptatibotzat jo dute natura-kultura harremana. Hasierako ekologo kulturalak behinik behin hortan zebiltzan. Bestelako ikuspegiak badaude, ordea.

Frantzia herri-auzoa dugu, eta hantxe irakasle iharduniko antropologo bik gisa berezi batez garatu dute natura-kultura bikotea. Alde batetik, Émile Durkheim dugu. Bestetik, Claude Lévi-Strauss. Adaptatiboa eta ekonomikoa ezezik, errituala, kognitiboa eta dramatikoa da pertsonak izadiarekiko darabilen jarrera. Hala erakutsi dute bi ikertzaileok *totemismoa* deritzana aztertu ondoren.⁴

Totemismoaren bitartez gauzatutako natura-gizarte harremanak erlijiotzat jo zituen E. Durkheim-ek, gizarte "primitibo"en natura izate sakralizatua dela agertu zuelarik. Totemismoa dela-eta, eta beraz natura-kultura erlazioa dela-eta, C. Lévi-Strauss-ek zioenak gizabanakoen esparru kognitibora jo zuen. Alegia, burubarneko prozesu logikora. Hala eginez, natura-gizarte erlazioa printzipio estetiko-kreatibotzat jo zuen.

Hasiera batean bi ikertzaileon abiabideak arrakastatsu suertatu arren, oraingo antropologia mesfidati dabil berek teorizatuarekin. Alde batetik, Durkheim-en ikuspegiak sakratuari lar inportantzia zemaioa aitortzen da. Halaber, gizartegintzan pertsonak oso geldo eta pasiboak direlako irudia hedatzea leporatu izan zaio. C. Lévi-Strauss-i; beste alde batetik, oso psikologikoa dela bere antropologia esan zaio.

C. Lévi-Strauss-ek bultzatutako ideia batek eragin handia izan du izadiaren eta gizartearen arteko harremanen ikerkuntzan: Lévi-Strauss-en analisisan natura-kultura harremana oposiziozkoa da. Natura-kultura erlazioa bien arteko, elkarren arteko, oposizioan oinarritzen da. Euskal antropologian ere bai topo egiten dugu natura-kultura oposiziozko ideia honekin.⁵

Aipatzekoa da, azken hamarkadetako antropologiak erakutsi duenez, ez dela beti suertatzen natura eta kultura elkarren artean etsaiak izatea. Hots, azterlari batzuren argudioari jarraituz, halako oposaketa, egiazkoa baino, irudi ideologikoa da. Areago, kapitalaren logikak sortarazi du halako irudi antagonikoa izadiaren eta pertsonen arteko harremanetan.

³ Besteak beste, honako saioak arestian erranikoaren adibide onak ditugu: "El Nuevo Ascetismo: cultura y medio ambiente", Mary Douglass, *Revista de Occidente* nº137, Madrid, 1992; *Contemporary Futures: perspectives from social anthropology*, Sandra Wallman (ed.), Routledge, Londres 1992; *Environmentalism: the view from anthropology*, Kay Milton (ed.), Routledge, Londres, 1993; *Future natural: nature, science, culture*, WVA, Routledge, 1996; *Ciencias Sociales y Formación Ambiental*, Enrique Lef (ed.), Gedisa, 1994.

⁴ Ikus *Las formas elementales de la vida religiosa*, Émile Durkheim, Schapire, Buenos Aires, 1915.; *Clasificaciones Primitivas (y otros ensayos de antropología positiva)*, E. Durkheim, Ariel, 1996; *El pensamiento salvaje*, C. Lévi-Strauss, FCE, 1964; eta *El Totemismo en la actualidad*, C. Lévi-Strauss, FCE, 1965.

⁵ Ikus, esate baterako, *Kontuzaharrak: introducción a la historia oral*, Joxemartin Apalategi, Anthropos, Barcelona, 1988; *La Mascara de Ordíarp*, François Fourquet, Baionako Euskal Museoa, Baiona, 1987.

Paradoxikoki, Jean Braudillard pentsalariak azaldu duenez, kapitalismoari Marx-ek egin-dako kritikak ez du balio natura-kultura harremana modu ez-ideologizatu batetik ikusi ahal izateko, zeren –J. Braudillard-i jarrai– Marx-en teoria kapitalaren zutabe produktibo berberetan oinarritzen baita.⁶

Antropologiak ekarritako lekuko etnografikoak kontestualki ikertuz gero, honakoa jakinarazten zaigu: C. Lévi-Strauss-ek proposaturiko bikotasuna ez da unibertsala, eta ez dago, ezta ere, oso zabaldua munduan zehar. Alderantziz, halako ikuspegia oso murrizta da. Are guxtiago, mendebaldeko kulturetako ezaugarri nagusia ere ez da.⁷

Honetaz, antropologo batzuk diotenez, maila sozial eta ogibide guztiek konpartituriko gauza izan baino, talde sozial, politiko eta ekonomiko interesatuek hedatutako irudi ideologikoa da natura-kultura dikotomia.

Naturaren eta gizartearen arteko harremanak oposizio gisa ulertzen dugunean, 'hezi'aren nozioa sortzen da. Natura hezbakoa, hezkaizta, itsu eta basa da. Gizartea, ordea, pertsona-multzoa da; gizaki eta kulturdun da, landua eta begiratu. Darraikionez, gizartearen funtsa, natura heztea, naturaren hezketa da; erran nahi baita, kulturaren zeregina basaz jabetzea dela. Hezi eta jabetu aditzek 'menperatu' adierazten dute, hau da, 'azpiratu/nagusitu' esan gura dute: kulturak natura azpiratu, eta kultura naturari nagusitu.

Naturatik bildutako metaforak erabiltzea bide arrunta da talde sozialen egintzan. Maiz abiatzen gara naturaren mundura geure gizarteko pertsonen artean atxikimenduak eta aldeak jakinarazteko. Beronen frogak nabarmen datoz. Émile Durkheim-ek erakutsi zuenez, naturaren bitartez ordenu soziala finkatzen dugu. Claude Lévi-Strauss-ek adierazi zuenez, natura dela medio, ordenu kontzeptuala osatzen dugu.

Gizarte "primitibo"etan ezezik gizarte modernoan ere gako da metafora.⁸ Eta naturatik batutako metaforek daukaten indarra noraino hedatzen den jakitea harrigarria da, zeren diskurso zientifikoek ere natura hartzen baitute maileguz, beren arrazoiak jendaurreratzerakoan. Azken kasu hau dela-eta, Salmond-ek idatzitako saioa oso esankorra da.⁹

Natura/kultura harremanaren alderdi batzu erakutsi nahi ditu *koaderno* monografiko honek, gehienbat euskal nekazal gizarteko testuinguru etnografikora begiraturaz. Hemengo artikuluen berri eman baino lehenago, ohar berezi batzu gogoratu behar ditugu, hala ere.

Mendialdeko gizarteetan sarri gertatzen da pertsonak, auzoek eta herriek izengoitia eukitea, izengoitia normalean naturaren izaki baten izena izaten delarik. Euskal Herrian ere halaxe gertatzen da, eta izengoitien zerrenda edo bilduma batzu dauden arren, izengoitien erabilera sozio-kulturalaren azterketarik ez dago.

⁶ Ikus Jean Braudillard, *Crítica de la Economía Política del Signo*, Siglo XXI, 1974; eta *El Espejo de la Producción*, Gedisa, 1980.

⁷ Azpimarratu beharra dago zientzia modernoan berdin gertatzen dela. Fisika ikerketan, esate baterako, Detlev Nothangel horrexetan saiatu da bere "The reproduction of nature in contemporary high physics" artikuluan. *Nature and Society: anthropological perspectives* izeneko liburuan argitaratua (Philippe Descola and Gísli Pálsson, eds., Routledge, 1996).

⁸ Ikus *Metáforas de la vida cotidiana*, George Lakoff eta Mark Johnson, Cátedra, 1986.

⁹ Ikus "Theoretical Landscapes: on cross-cultural conception of knowledges", Salmond, in *Semantic Anthropology*, VVAA, ASA nº22, 1982.

Eduki sozialari jaramon egiten dion etnolinguistika inportantea da natura-kultura harremnaren analisia. Gai honetan instant batez pausatzen baldin bagara, ikusten dugu euskaraz nahiko anbigualtasun bat badagoela natura-kultura harremana nola edo hala izendatzen duten berbetan: 'basoa', 'mendia', 'oihana', 'bortua' (eta euren etorreraren) hitzen zabalera semantikoa aldakorra da euskalkiz euskalki, bai toponimian eta bai eguneroko eleztan. Ondorioz, zaila da harreman antagoiniko bat dagoenik zuzen-zuzenean konkluitzea.

Mendia, basoa, oihana edota bortua espazio kodifikatuak dira: ekonomikoki, politikoki eta poetikoki kodifikaturiko espazioak dira. Bertako jendeen tradiziozko ekonomian, politikan eta poetikan ez dago naturaren eta kulturaren arteko muga zehatzik, elkarren arteko burruka berekerorik. Ildo honetatik etorri da Julio Caro Barojaren ikerlan frango.¹⁰

Mendiari begira bizi izan den baserritarrak naturari buruzko poetika beregisakoa garatu du, Joxemiel de Barandiaran-ek bildu zuena, orain liburuetan baino ez dagoena, zeren eta mendiari begira ziharduen baserritarraren tokia tailerrari begira diharduen baserritarrak kendu baitio.

Hau dela-eta, biziki esanguratsua da gaur eguneko istoriak eta kontuak laborarien artean entzutea. Beren erreferenteak baileran, ibarrean, daude. Eskualdeko hiriburuan agitzen dira. Natura-kultura harremanak sortzen duen irudigintzan, beraz, irudien produkzio-guneak egoten dira, eta mendialdeko gizarteetan aldaketa esankorra finkatu da: gaur egun kaleko bizi-moduak ekoizten ditu mendiko bizilagunek mitifikatzen eta poetizatzen dituzten irudiak.¹¹

BASOARI ETA MENDIKO GIZARTEEI BURUZKO ANTROPOLOGIA

Naturaren gizarteak ba ote daudenetz ihardun dute antropologo batzuk.¹² Europako kontestu kultural eta etnografikoan zenbait antropologok "mendiko gizarte"ez egin dute berba¹³, Europako mendialdeko jendeek amankomuneko ezaugarriak badituztela jakinarazi asmotan.

Euskal gizartea eta kultura *complex* pirinioar zabal batean kokatzeko jokaera aspalditik dator. Joxemiel de Barandiaran-en ikerkuntza ideia honi begira garatu da. Hala ere, *mendiko gizarteak* esakera gaurko antropologiak kategoria analitikitotzat hartzen duenean, ikerketa berezi bat eskatzen du.

Halako *mendiko gizarteak* kategoria analitikoa ba ote den itauntzeak, bestalde, konparazioa derrigortzen du. Galdera honek dakarkigun konparazioa ez da Joxemiel de Barandiaran-

¹⁰ Ikus, adibide gisa, berak idatzirik *La vida rural en Vera de Bidasoa*, Txertoa, 1974; *La ciudad y el campo*, Alfabera, 1966; *Paisajes y ciudades*, Taurus, 1984; *De la superstición al ateísmo*, 1974, Taurus; *Ritos y Mitos Equívocos*, Istmo, 1974.

¹¹ Egoera honen berri soziologiko zehatzagoa honako saioetan aurki daiteke: "Las transformaciones operadas en el grupo doméstico de Aramaio (País Vasco) a raíz de la industrialización", Josetxu Martínez, in *La Familia als Pirineus*, Dolors Comas de Argemín y Jean François Soulet (eds.), Govern d'Andorra, 1993; "En torno a los conceptos de casa, familia y valle: sentido y significado del término 'tradición' en el ámbito pirenaico", Kepa Fdez. de Larrinoa, in *Actas del I Congreso d'Historia de la Familia als Pirineus*, Centre de Trobada de les Cultures Pirinenques, Andorra, 1992; *Aldradas y Güellas: trabajo, sociedad y cultura en el Pirineo Aragonés*, Comas d'Argemín eta Joan Pujadas, Anthropos, Barcelona, 1985.

¹² Adibide ona Philippe Descola-ren liburua da: *In the Society of Nature: a Native Ecology in Amazonia*, Cambridge University Press, 1992.

¹³ Ikus *Koaderno* honen Eranskina izeneko atalean Josetxu Martínez-ek ondutako bibliografia.

en eskola etnografikoak praktikatzen duen konparazioa. Hau da, euskal herrietako, edota Pirinioetako herrietako, ezaugarri sozio-kulturalak euren artean konparatzea.

Ez da, ezta ere, Julio Caro Baroja ahalegindu zen konparazioa. Alegia, batetik, oro har mediterraneo aldeko –eta zehazkiago Euskal Herriko– gizarteak eta kulturak, eta bestetik, mundu greko-latiniar klasikoa *vis à vis* aztertzea. *Mendiko gizarteak* kategorian analitikoak Himalaia, Atlas, Alpes, Andes, Pirinio eta abarreko mendikateetan garaturiko bizimoduak eta kosmobisioak elkarren ondora ekartzea eskatzen du. Baita ere delako ondoratzearen ondorioz aurkitzen denaz gogoeta egitea.

Arestiko ikerlan konparatiboarekin batera ditziplinartekotasuna funtsezkoa da. *Mendiko gizarteak* aztergai izatea biologiak, ekologiak, etnografiak, folkloreak arkeologiak, historiak eta antropologia sozio-kulturalak elkarrekin lanegitea da. Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografiak Donostian eta Iruñean 1995.eko eta 1996.eko urteetan Basoari eta Mendiari Buruzko Ihardunaldiak antolatu zituenean, ditziplina bat baino gehiagoren arteko elkarkomunikazioa eta elkarrizketa sortarazi nahi izan zituen.

Geure esku izan ez diren arrazoiengatik, zoritxarrez, ezin izan dizkiogu monografiko honi erantsi Ihardunaldi haietan antropologia fisikoaren eta antropologia ekologikoaren esparruak landu zituzten txosten batzu.

ESPAZIOAREN ADIERA

Mendialdeko gizartearen analisiak paisaiaren analisia dakar. Alegia, paisaiaren osagileak zein diren antzeman, beren erabilera etnografiatu, beren logikari hurbildu, eta beren konbinazioaren proportzioak zehaztu behar ditugu. Datozen artikuluek, bakoitzak bere angulutik, honetaz baino ez dihardute.

Zentzu honetan, Julio Caro Barojak plantatu zuen bezalaxe, espaziozko formen adiera soziala bilatu behar dugu, zeren espaziozko tankerek ez dute ezitezno itxura hartzen. Araka ditzagun, orduan, espazioaren plangintzak oinarritzen direneko kontzeptu kulturalak, eta ikus dezagun zernolatan antolatzen diren –bai kulturalki eta bai sozialki– ‘basoak’ eta ‘mendiko parajeak’ deritzegun espazio *horiek*. Apika aurkituko dugu ‘kultura’ eta ‘tradizioa’ izendutako gauza askok garaian garaiko ekonomiarekin zerikusi handia badutela.

Labur esanda, goian aipaturiko ‘paisaiaren adiera’z nahi du saiatu *Koaderno* honek. Dauden hutsuneak betetzera gonbidatzen du. Eta mundu erruralari buruz hain beharrezko diren etnografia zein teorizazio berriak ugarituko direlako ilusioaz dator argitara.

Txostenak argitaratzean, atal batzu bereiztu dira. Irakurlegoari luzatzen zaion bereizketa hau ez da kasualitatez gauzatu. Erabakitako banaketak bere logika badu, nahiz eta atalen arteko artikulua frangotan amankomuneko gaiak eta argudioak egon.

Atal bateko azterlariek dioskutenez, mendiak eta pertsonak elkarren arteko jokaeran analizatuta gero, izakerak eta nortasunak aurkitzen ditugu. Honetaz, Josetxu Martínez-i jarrai, *nortasun sozio-kultural identifikagarriak* ikusi ahal ditugu mendialdeko bizimoduetan. Baita ere habitat honetan, Jesús Oliva-k azkengarren atalean dakarrenez, *nortasun sozio-ekonomiko jakinak* deskokatu dira. Juan de Pagoeta-k darakusen bezala, *tokian tokiko nortasun juridikoak* eratu dira. Eta José Antonio Perales-ek argudiatzen duen lez, *izakera etniko eta politikoak* ere bertan mamitu dira. Azterlari hauen artikuluetan nabarmen azaltzen zaigu ezen mendien, ba-

soen eta pertsonen arteko harrmena anitza dela, kontestuala oso. Bestela esanda, dinamikoa eta tirabiratsua.

Mendiak, basoak. Berauek jendeak erabiltzeak lekuan lekuko ezagutza apartak sortarazi ditu. Ezagutza hauek, besteak beste, enpirikoak eta interpretatikoak dira. Hau da, **basoari eta mendiari buruzko ezagutza tekniko-praktikoak eta ospakizuneko edota estetiko-artistikoak**. *Koaderno* honetako bigarren atalean basoari buruzko barne-ezagutzak ditugu mintzagai. Margarita Fernández-ek etno edo herri-botanikaren jakintzaren berri ematen digu. Mikel Legorburu-k, bere aldetik, baserrigiroko ospakizuneko dramatizazio erritualean murgildu da. Luxio Ugarte-k ahozko kultura ez-mendebaldetarren eragina idatzizko kultura mendebaldetarrean hartu du bere gain. Jose Antonio Quijera-k, bertan bertako kreaio mitiko-poetikoa inhardun du.

La desagertzeaz edo jadanik desagertuta dauden ogibide batzuk osatu dute *Koaderno* honetako hirugarren atala. Hemen honako gaiak ikusten ditugu: mendiarekiko lanbideak eta berauei dagozkien tresnak; basoarekiko ezagutzak eta berauek dakartzaten erabilerak; lur-lantze bereziak. Aldi berean, metodologiaren eta iker-tekniken inportantzia begiesten dugu artikulu hauetan.

Etnografiaren eta historiaren eginbideak nabarmen ditugu atal honetan. Alegia, artxiboetan idatzizko dokumentu-bilketa eta *trabajo de campo* edo 'bertan bertako inhardueran' ahozko dokumentuetan datu-bilketa. Honatutako artikuluak erakusten digutenez, etnobotanika, arkeobotanika, artxiboa, toponimia, arkitektura, ahozko historia eta informanteekin elkarriketa luze eta sakonak gako dira.

Azkeneko atalean, **gaur eguneko testuinguru sozial eta ekonomikoetan mamitzen ari diren portaeren etnografiara** hurbildu dira Julio Grande, Jesús Mari Garayo eta Kepa Fdez. de Larrinoa. Gaur eguneko mendialdeko eta baserrigiroko gizartearen eta kulturen etnografia osatzerakoan, bai Jesús Oliva-k marratzen duen norabide sozio-ekonomikoa, eta bai Josetxu Martínez Montaya-k identifikatzen duen norabide sozio-kulturala ukoezinezkoak dira.

Lau atal hauen ondoren, Josetxu Martínez-ek ondutako BIBLIOGRAFIA dugu. Bihoakie gure eskertza monografiko honetako idazle eta inhardunaldietako hizlari guztiei; era berean Eusko Ikaskuntzako Idazkaritzako José Angel Ormazabal, Eva, eta Edurneri euren laguntza-rengatik *Koaderno* honen prestakeran. Baita ere Olatz Zumalabe, Itziar, Arantza eta Martari, Basoari eta Mendiari Buruzko inhardunaldien antolakuntzan emandako laguntza-rengatik.